



elkartea@feuse.org
www.feuse.org

Farmaberriri

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



Aurtengo Batzar Orokorra eta jai eguna Getarian

atsegin handiz jakinarazten dizugu datorren apirilaren 1ean, igandea, Farmazialari Euskaldunen Elkartearen XII. Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna Getarian ospatuko dugula. Egun berean, Miren Eskarne Fuldain Isasi-Isasmendi lankideari 2006ko Feuseren farmaburua emango diogu.

Dakizunez, Feusek 2004an farmaziaren arloan euskararen erabilera bultzatzeko, indartzeko eta normalizatzeko egiten diren ekimenak, egitasmoak eta ekintzak eskertzeko Feuseren farmaburua sortu zuen eta edozein gizabanakok, taldek, erakundek edo elkartek eskuratu ahal du. Gaurikurrat Bernat Vidal eskultoreak egindako artelana da eta bi urtean behin ematen dugu.

Lehen Feuseren farmaburua EHUko Farmazia Fakultateak eskuratu zuen 2004an, azken urte hauetan, fakultatean bertan, euskararen erabilera normalizatzearen alde emandako aurrerapausoengatik. Oraingoan, Elkarteko Zuzendaritza-batzordeak, atsegin handiz, Feuseren far-

maburua Miren Fuldain lankideari ematea erabaki du. Mirenek maisu-formulak egin ahal izateko ehun bat erabilera-orri prestatu ditu euskaraz. Lan hori oso baliagarria da, batez ere, maisu-formuluen eta prestatkin ofizialen elaborazioa arauzten duen dekretua indarrean jarri zenetik (otsailaren 17ko 175/2001 Errege-dekretua eta dekretua garatzen duten autonomia-arau desberdinak).

Mirenek Getariako bere farmazian egiten du lan. Feuseri oso lotua egon da elkartearen sorreratik. Elkartearen sortzaileetako bat da.

Egitaraua eta gainerako zehaztasunak hurrengo egunetan jasoko dituzue; beraz, adi egon: apirilaren 1ean, igandea, Getarian duzue hitzordua. Aukera bikaina ondo pasatzeko, berriketaldi atsegina egiteko eta iritziak elkarri adierazteko. Ez huts egin!





OTITISA

5 urte bete aurretik haurren %75ak pairatzen duen sufrimendua

Belarria, organu konplexu, delikatu eta ederrenetakoa da, inguruko soinu eta mezuak gureganatzen dizkiguna, oreka mantentzea posible egiteaz gain, anatomikoki hiru zatitan banatzen dugu belarria: Barne-belarria, erdiko belarria eta kanpo-belarria.

Otitisa edozein adinetan eman daiteke, baina batez ere 0 eta 7 urte bitarteko haurren. Baina, zergatik haurren?

Gizakiok, eztarria eta belarria lotzen dituen tutu antzeko bat dugu, Eustakioren tronpa, eta haurretan Eustakioren tron-

pa, motzagoa, zabalagoa eta zuzenagoa da, horrela, bakterio eta birusei ahotik nahiz sudurretik belarriraino bidea erretzen zaie. Batzuetan hainbat arrazoi ezberdinengatik (eztarriko infekzioa, sinusitisa, alergia, katarroa...) tronpa inflamaturik edo bidea itxita egon ohi da. Mukia edo exudatuak pliatu egiten da erdiko belarran, atera ezinik. Horretaz gain, defentsak ere ez dituzte erabat garaturik.

Otitis motak

• **Kanpo-otitisa:** udaran sarriago ematen da.

• **Erdiko-otitisa:** Infekzioa erdiko belarran kokatzen da, haurretan gehien ematen dena da, eta entzumen galaran eragin handienetakoa duen faktorea da. Mutilek joera gehiago dute neskek baino erdiko otitisa harrapatzeko. Sintomak 0 eta 3 aste bitartean irauten dutenean, erdiko otitis akutua dela esaten da, subakutua 3 eta 12 aste bitartean eta hortik gora **kronikoa**. Eritasunaren eboluzioaren arabera, likido ezberdinak ager daitezke (zorna, ur antzekoa, muki antzekoa).


• **Otitis-errepikaria:** Sei hilabetetan 3 aldiz gertatzen denean.

• **Otitis zorna jariatzailea:** Erdiko belarria betetzen duen zornak tinpanoa hautsi eta kanpora ateratzen da, momentu honetan mina eta sukarra desagertu egiten dira, eta tinpanoa ondo zikatritzatzen da bere kasara, nola eta zorna jarria denboran asko luzatzen ez den. Azken kasu honetan otorrinolaringologoarengana jo beharke litzaiteke. Hilabete batzuk otitisik gabe pasatuz gero, eta tinpanoko zauria ibixiko ez balitz, hartu beharreko neurriekiko oso iritzi ezberdinak daude.

Otitisa behin eta berriz harrapatzeko joera izateko hainbat faktore erabakior adierazten ditu AEPED-ek (Espainiar estatuko pediatriaren elkarteak): Haurtzaindegira joatea, mutile izatea, erretzaileekin bizitzea, anatomikoki berezitasunen bat izatea sudur, aho, faringe mailan, herentzia ere oso garrantzitsua da, eta azkenik amaren bularrak hartu ez duten umeei maizago harrapatzen dute otitisa.

Tratamendua

Beroak mina jeisten du, baina normalean aho bidezko antibiotikoa erabiltzen da 10-14 egunez, askotan sudur deskonjestionatzaileak eta mukolitikoa ere erabiltzen dira. Espezialistek, otitis asko harrapatzen dituzten haurrei tinpano mintza zeharkatzen duten drainatze-hodiak jartzen dizkiote. Gaur egun teknika honen eta tinpanostomiaren inguruan geroz eta polemika gehiago ari da sortzen.



Orain egun gutxi, euskara eta osasuna uztartzen duen programa berezi bat badela irakurri nuen egunkarian, *Osatuz*, hain zuzen ere. Programa honen barruan, irratsaloak, Eusko Jauriaritza eta Elkargo Profesional ezberdinen arteko kolaborazio hitzarmenak eta web

orri bat badela ere, jakin ahal izan nuen. Benetan poztu ninduen albistea izan zen, alajaina. Beti ere, pozgarria gertatzen baita orain artean hain erabilera ofizial txikia izan duen esparru batean, euskara bere lekua irabazten ari dela jakitea.

Teknologi berriak lagun, eta mundua bezain zaharra den jakin minak bultzaturik, web orriari murgiltzea erabaki nuen, www.ikasbil.net/osatuz inork sartu nahi badu. Orri honetan, besteak beste, euskara ikasi edo trebatu nahi duen osasun arloko edozein profesionalontzat ariketa praktikoak, irratsaioen iruzkinak, gai ezberdinen gaineko artikulak, estekak, aldizkariak, foroak eta abar luze bat topatu nuen.

Farmazialaria izaki, ordea, hutsunerik ere, baten. Gure lanbidearen gaineko material gutxi ikusi nuen, zoritxarrez. Horrek, euskarak gure artean duen lekuaren gaineko hausnarketa bat egitera bultzatu ninduen. Ondorioa ez zen nik nahi beste pozgarri izan; gure artean, oraindik ere, euskara sukaldean dagoela pentsatu nuen, su baxuaren goxotasunean, kalera iriteteko beldurrez, kanpoan aurkituko dituen zailtasun eta gauza ezezagunen beldur dela.

Badakit, ideia honen aurrean, batek baino gehiagok ezkor izatea aurpegi-ratuko didala. Egoera hain txarra ez dela, eta aurreko garaiekin alderatuz, gau-

Euskara eta farmazia

za asko egin izanaz gain, hizkuntzaren bizi iraupen hutsetik, euskara, egonkortasun finko batera pasa dela argudiatuko duela. Bai, noski. Arrazoi guztia emango nioke, gainera, horrelako kontraeraso bati. Gauza asko egiteko dugula ere, begi bistakoa dela plaza-ratu nahiko nuke, ordea. Farmazia munduan, oraindik ere, euskarak erronka handiak dituela eta gure esku dagoela ekintza horiek aurrera eramatea.

Lehenik eta behin, gure profesioan euskarak duen egoeraren analisi zehatz bat egin beharko litzatekeela iruditzen zait. Izan ere, ba al dakigu zein den euskararen erabilera, ezagutza, profesionalok berekiko dugun jarrera eta hartu emana? Badakit inoiz baino baliabide gehiago ditugula esku artean, hortxe daude Elkargo ezberdinetako euskara taldeak, FEUSE bera, eta

zer esanik ez, botikari askoren gogo eta nahiak. Elkar lana eta kooperazioa falta dela iruditzen zait, haatik. Bakoltza bere aldetik jardun beharrean, ez al litzateke eraginkorragoa izango proiektu berrietan guztion ahaleginak elkar-tzea? Ni baiezkotan nago.

Etorkizunera begira, elkarlana, abiapuntu garrantzitsu bezala kontuan hartu beharreko premisa delakoan nago, gainontzean, gure ahaleginak, ezinbestean, lau haizetara barreiatuak izango baitira. Ez dut artikulua hau amaitu nahi, baina komunikaziorako tresna garrantzitsu edo erabilgarri bilaka daitekeen baliabide bat aipatu gabe, FEUSEren web orria, hain zuzen ere, www.feuse.org. Gure profesioaren kezka eta nahiak gure artean eztabaidatzeko foro ezin hobea izan daitekeela koan nago.



CINFA bisitatu genuen

Joan den urtarilaren 18an, Feuseko hogei bat kidek Cinfak Uharten duen laborategia bisitatu genuen. Amatsaldeko ordu bietan laborategian bertan genuen hitzordua enpresako lagunekin. Javier Ibilcieta Cinfako kontseilari-ordezkariek eta Javier Galardi enpresako zuzendari-komertzialak laborategiaren aurkezpena egin ziguten. Enrique Ordieres enpresako lehendakariak ezin zela etorri adierazi zigun; gurekin ez egotea biziki sentitzen zuela baina egun berean Madrilan egon behar zuela lerketa Cinfia Saria ematen.

Jarraian mokadu goxoa egin genuen. Kafea hartu ondoren, Ana Oficialdegui marketing departamentuko lankidearen gidaritzapean laborategia erakutsi ziguten teknikariek. Produktu-poltsa bana Cinfak oparitu eta, etxera joan baino lehen, orrigarri gisa, argazki bat atera ziguten. Egun bikaina. Biziki esker-tzen diegu enpresako arduradunei gurekiko adalatsuna.

Farmazialari jatorra eta euskaltzalea

Jokin Bilbao lankidea hil zen

Joan den urriaren 22an Jokin Bilbao elkarteakidea hil zen. Jokinek Hernaniko bere farmazian urte askotan egin zuen lan. Oso pertsona ezaguna, farmazialari jatorra eta euskaltzale porrokatua izan zen. Hernaniko zinegotzia ere izan zen 1990eko hamarkadan. Lerro hauen bidez gure doluminik bizenak adierazten dizkiogu bere sendari.

Egiten ari den lanarengatik

FEUSEren Farmaburua Miren Eskarne Fuldain lankideari

Lehen orriaidean esan dugun bezala Elkarteako zuzendaritza-batzordeak, atsegin handiz, 2006ko Feuseren farmaburua Miren Eskarne Fuldain Isasi-Isasmendi lankideari ematea erabaki du.

Miren Getariako bere farmazian euskaraz bizi da, Mirenek euskara zaintzen du bere farmazian, eta nola gainera!

Farmazian euskaraz bizitzeaz gain, Mirenek, kikiidu gabe, bere pazienteei eta lagunei zuzendutako hamalaka osasun-txartel eta osasun-aholku euskaratu ditu eta, gero, egindako lana beste lankideei eskaini.

Izan ere, Mirenek uste osoa du bere farmazian paziente eta lagun euskaldunekin euskaraz aritu behar dela, eta uste hori zintzoki betetzen du. Esaterako, duela



gutxi, maisu-formulak egin ahal izateko ehun bat erabilerari orri prestatu ditu euskaraz. Lan hori oso balagarria da, batez ere, maisu-formulak eta prestatu ofizialen elaborazioa arautzen duen dekretua eta dekretu hori garatzen duten autonomia-eratu desberdinak indarrean jarri zirenetik. Halaber esan dugu lehen, Miren Feuseri oso lotua egon dela elkartearen sortu zenetik, elkartearen sortzaileetako bat dela. Apirilaren 1a, bada, Getariako Alondiga Zaharrean, Elkartearen XII. Batzar Orokorra egin ondoren, Feuseren farmaburua emango diegu Mireni, Hantxe izango gara Miren zoriontzeko.